

ANIZTASUN PLANA

BARRUTIA LHI

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2012ko apirilean Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa abiarazi zuen. Planak bat egiten du UNESCOk sustatzen duen hezkuntza inklusiboaren jardun-ildoarekin.

Eskola inklusiboaren lehentasunak

Eskola inklusiboaren xede nagusia da ikasle guztiek ahalik eta gehien garatzea haien gaitasunak eta ahalmenak proiektu pertsonal eta profesional bat eraikitzeko gai izan daitezen.

Xede hori lortzeko, honako lehentasun orokor hauek nabarmenduko ditugu:

1. Ikasle bakoitzaren beharretara egokitzea.

Ikasleek dituzten premien detekzio goiztiarraren garrantzia nabarmentzen dugu. Eskainiko dugun hezkuntza erantzuna ikasle bakoitzaren beharretara egokituta egongo da, eta aniztasunari erantzun emateko behar diren banakako neurriak abiarazteko konpromezua hartuko dugu, bere gaitasunen garapena bermatzeko.

2. Eskola-esparru arruntetik ihardutea.

Eskola-esparru arruntetik ihardun behar da hezkuntza-sistemaren funtsezko elementuen gainean (curriculumarekin, metodologiarekin eta antolaketarekin lotutako elementuak), eta arreta berezia jarriko dugu ikasle guztien parte-hartzea eta ikaskuntza bermatzen duten irakaskuntza-ikaskuntza estrategietan.

3. Irakasle guztiak, gainerako langileak eta familiak inplikatzeko.

Funtsezkoa da irakasle guztien, gainerako langileen eta familien inplikazioa lortzea, hau da, beren gain hartu behar dute hezkuntza inklusibo bat lortzeko erantzukizuna, eta aniztasunari hezkuntza erantzuna emateko ikuspegi berri horren protagonista etiko direla sentitu behar dute.

4. Haurren eta esku-hartzearen beharrak garaiz balioestea.

Hezkuntza-sistemak, beraz, ahalik eta azkarren aztertu beharko ditu premia horiek, baliabide pertsonalak eta materialak jarri beharko ditu guztien eskura, curriculumak egokitu beharko du, irakasleei edo tutoreei erabakiak hartzen parte hartzeko eskatuko die, ohiko irakasleei zein langile espezializatuari prestakuntza emango die eta sektore arteko koordinazioa hobetuko du.

5. Ikasteko aukera errealak ematea gizartetik baztertuak izateko arrisku handiena duten kolektiboak.

Eskola inklusiboak bereziki bermatu behar ditu hainbat arrazoi direla medio gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dauden ikasleen presentzia, parte-hartzea eta lorpenak, eta modu positiboan ihardun behar du ikasleek ahalik eta gaitasun gehien gara ditzaten arlo pertsonalean eta eskola- eta gizarte-arloan.

Hezkuntzako Lege Organikoak, "Ekitatea hezkuntzan" izeneko II. tituluan, 1. kapituluan, adierazten du "Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasle" izango direla honako hauek:

- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak:ezgaitasuna,jokabide nahaste larriak.
- Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak.
- Gaitasun handiko ikasleak.
- Hezkuntza sisteman ohikoa baino beranduago sartu diren ikasleak
- Eskolako ibilbide edo baldintza pertsonal bereziak dituzten ikasleak.
- Desberdintasun sozialeko egoeran dauden ikasleak

1.BARRUTIA L.H.I.KO EZAUGARRIAK

Barrutiko Eskola D ereduko HH eta LHko eskola bat da .Orotara 15 unitate ditu.

Ikastetxe honetara ikasleak hamaika herri desberdinetatik datoz eta ia denak eskolako garraioa eta jantokia erabiltzen dute.

Eskolan guztira 286 ikasle daude

Irakaslegoari dagokionez 33 irakasle daude.

2.HEZIKETA BEREZIKO LAN TALDEA

Heziketa Bereziko lan taldea honela osatuta dago:

- PT bi eta erdi.
- EHEko irakasle bat Barrutian izendatuta, baina Busturia,Aulesti,Munitibar, Natxituako eskolekin konpartituta.
- Bi hezitzaile eta erdi.
- Kontsultore bat.

3-HEZKUNTZA BEHARRAK ANTZEMATEKO PROZESUA

1. Tutoreak Hezkuntza Beharrak antzematen ditu ikasle batengan edo taldearengan (tutoreak berak, beste irakasleek edo familiak antzematen dutelako).
2. Tutorea aholkulariarekin batzen da eta batutako informazioa eta dituen kezkek azaltzen dizkio.
3. ARRETA GOIZTIARRA Ikasleek dituzten premien detekzio goiztiarraren garrantzia nabarmentzen dugu. Horretarako, garapeneko arazoak edo ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen detekzio goiztiar hori errazteko tresnak erabiliko dira(Garapen behaketaren eskalak) lehenbailehen esku hartu ahal izateko
4. Tutoreak informazioa biltzen du (behaketaren bidez, aurreko txostenak ikusiz, hasierako ebaluaketa eginez, ...).
5. Tutoreak beste irakasleekin eta familiarekin informazioa elkartrukutzen du.
6. Tutoreak modu normalizatu batean behar hauei erantzuna ematen saiatzen da gela arruntean, aholkulariaren laguntzarekin. HIBP-PIREa zabaltzen zaio
7. Modu honetan, ikaslearen egoera bideratzea, ez bada lortzen, bi egoeren aurrean aurkitu gaitetzke:

Indar Neurriak behar dituzten ikasleak	Heziketa Premia Bereziakotako ikasleak
<p>1. Tutoreak aholkulariari ikasle baten jarraipena egiteko eskaera egiten dio. HIBPko 1.eranskina beteko da, behar izan ezkeru.</p> <p>2. Batzar bat egiten da irakasle talde eta aholkulariaren artean.</p> <p>3. Ikaslearen egoera aztertzen da.</p> <p>4. Behaketan lortutako informazioa aztertu ondoren indar neurrien antolaketa egiten da eta HIBPko 2. eranskinean idazten da.</p> <p>5. Ikasleari jarraipen zuzena egiten zaio eta bere eboluzioa ebaluatzen da.</p> <p>6. Zailtasun bereziren bat ikusten badugu familiarekin bilera egiten da, eta kasua bada, profesional batera bideratzen da.</p> <p>7. Kasu batzuetan, kanpoko profesionalak (psikologo kliniko, UPI, neuropediatrak) diagnostikoa egiten dute: dislexia, diskalkulia, arreta gabezia hiperaktibitate edo hiperaktibitate gabe, gaitasun handia, hizkuntzaren nahasmendua. Ikasle hauei Jarduketa Plan personalizatua egin behar zaie eta familiaren baimenarekin HLPB (W67) aplikazioan sartu egin behar dira.</p>	<p>1. Aholkulariari eskaera egiten zaio .</p> <p>2. Aholkularia gelan sartzen da eskaera baloratzeko.</p> <p>3. Eskaera baloratu ondoren, tutorearekin bilera egiten da.</p> <p>4. Ondoren familiarekin bilera egiten da, informazioa elkartrukatzeko. Kasu batzuetan baimena eskatzen zaie aholkulariak, ALEK behaketa egiteko, edo, beharren arabera, Berritzeguneko aholkulariak azterketa psikopedagogikoa egiteko, berarekin aldeztu aurretik gaia aztertu ondoren.</p> <p>5. Beharrezkoa den kasuetan, eskolaz kanpoko beste zerbitzurik esku-hartzea badu, haiekin bilera egiten da informazioa elkartrukatzeko eta txostenak jasotzeko, beti ere familiaren baimenarekin.</p> <p>6. Jasotako informazio guztiarekin, Berritzeguneko aholkulariak zerrendatan sartzea erabakitzen badu, familiari baimena eskatzen zaio.</p> <p>7. Ikasle bakoitzak behar dituen laguntzak aztertu ondoren hurrengo urterako zerrendak osatuko dira.</p> <p>8. Bitartean ikasleak laguntzak jasotzen ditu.</p>

4.LAGUNTZEN ANTOLAKETA

Eskola barruko laguntzak

Laguntzak antolatzeko orduan hiru talde bereizi behar ditugu:

- Beharrizan Bereziko ikasleak.

Ikasle hauen esku-hartzea Heziketa Bereziko lantaldeak egingo du. Ikasturte hasieran beharrik ikusirik interbentzioa nola egingo den antolatzen da Heziketa Bereziko talde eta Ikasketa Buruaren artean.

Ikasle hauen barruan batzuei, euren beharrak aztertu ondoren, CEla egingo zaie, Berritzeguneko aholkulariaren oniritziarekin eta beste guztiei Norbanakako Plana.

- Indartze neurriak behar dituzten ikasleak.

a. Tutoreek aurreko ikasturtearen amaieran betetako HIBPak eta egon daitezkeen kasu berriak, zikloka aztertzen dira, zikloko irakasle, kontsultore eta Ikasketa Buruaren artean, batzar honetara, tutoreak, HIBPko 1. anexoa beteta ekarriko du. Beharrizanak ikusi ostean errefortzuko orduak antolatzen dira irakasleriaren ordu kredituekin. HIBPko 2. Anexoa betetzen da.

b. Kasu batzuetan, kanpoko profesionalek (psikologo kliniko, UPI, neuropediatrak) diagnostikoa egiten dute: dislexia, diskalkulia, arreta gabezia hiperaktibitate edo hiperaktibitate gabe, gaitasun handia, hizkuntzaren nahasmendua. Ikasle hauei Jarduketa Plan pertsonalizatua egin behar zaie. Plan horretan hartu diren neurriak edo, behar izan ezker, laguntzak nola antolatuko diren agurtuko da.

- HIPIko ikasleak.

Ziklo bilerak antolatzen dira kontsultore eta Ikasketa Buruarekin, HIPIko ikasleen beharrak aztertzeko.

HIPIko irakaslerik ez dagoenean, ikasle hauen eskuhartzea irakaslegoaren ordu kreditutik egiten da.

Goian aipatutako hiru taldeen laguntzak modu desberdinetara antolatzen dira ikasleen ezaugarriak eta beharrak aztertu eta gero:

- Laguntzak gela barruan:

Laguntzako irakaslea taldearen barruan sartzen da edo bi talde egiten dira arlo konkretu batzuk lantzeko.

- Laguntzak gelatik kanpo:

Kasu berezietan ikasleak banan edo talde txikietan ateratzen dira gelatik laguntza emateko. Honetarako familian baimena eskatzen da. Batzuetan ikasleak gauza puntualak lantzeko irtetzen dira eta beste batzuetan ezinbestekoa denean.

Eskolatik kanpoko laguntzak

- Berritzeguneko aholkularia, terapeuta, fisioterapeuta.

Berritzeguneko aholkularia hilean behin kontsultorearekin batuko da sortzen diren beharrianak aztertze eta behar bada, ikasleen ebaluazio psikopedagogikoa egiteko.

Terapeutak ikasleen jarraipena egingo du eta behar duten material eta egokitzapenak egingo ditu.

Fisioterapeutak jarraipena, aholkuak eta esku hartze zuzena egiten du kasuaren arabera.

- Gizarte Zerbitzuak: kontsultoreak egingo du koordinazio lana eta behar denean bilerak antolatuko dira tutore, Gizarte Zerbitzu eta kontsultoreen artean.
- UPI,pediatra:koordinazioa kontsultorek eramango du eta behar direnean bilerak antolatuko dira, bai eskolan, zein Osasun Zerbitzuetan ikasleen jarraipena egiteko.
- Kontsultoreak ikasleak joaten diren beste gabinetek batzuekin koordinazio lana egingo du: Altzoan,Fundacion Sindrome de Down,Olatz Mugika logopeda,Pausoak,e.a.

5-KOORDINAZIOA

Ikasleen inguruko irakasleen koordinazioa

- Heziketa Bereziko Ikasleak.
Ikasturte hasieran HPBko ikasleen tutoreekin banan-banan informazioa pasatzeko bilera bat egingo da,espezialista,Ikasketa Burua eta kontsultorearen artean.
Ikasturtean zehar tutorea eta Heziketa Bereziko taldea (PT,ALE,kontsultorea) astearteetan batuko dira kurtso hasieran finkatutako egutegi baten arabera.
Ebaluazio epeetan bilerak egingo dira ikaslearekin inplikaturako irakasle eta HPBetako taldearen artean,ebaluaketaren aktan jasoz.
Ikasturte amaierako batzarrean ikaslearen hurrengo urtera begira plangintza zehaztuko da.
- Indartze neurriak behar dituzten ikasleek
Ikasturte hasieran,tutore eta irakasle taldeekin,HIBPko 1. Eranskinak eta sortu daitezken kasu berriak aztertze bilerak antolatuko dira.

Erakunde desberdinekin koordinazioa

- Berritzeguneko aholkulariarekin.
Hilean behin ordutegian saio bat ipinita daukagu koordinazioa egiteko.
- Gizarte zerbitzuekin
Ikasturte hasieran bilerak egiten dira beharren arabera eta kurtsoan zehar.
- UPI,pediatra kontaktuan jartzen gara telefonoz edo emailaz.

Familiekin koordinazioa

Bi motatako koordinazioa egingo da:

- HPBko ikasleen familiak

Ikasturte hasierako batzarra:ikaslearen urteko plangintza aurkezten zaie ,baita lan taldea ere.
Kurtsoan zehar ebaluazio epeetan,ikasleen ikaskuntza prozesuari buruzko informazioa ematen zaie.

Ikasturte bukaerako batzarrean ikaslearen kurtso amaierako egoeraren berri ematen zaie eta hurrengo ikasturteko planaren irizpideak.

Urtean zehar beharizanen arabera bilerak antolatuko dira.

- Indartze neurriak eta HIPIko ikasleen familiak.

Kurtso hasieran irakasle taldeak ikasleen beharrak antzeman eta laguntzak planifikatu ondoren, familiekin harremanetan jartzen da laguntza hauen berri emateko eta haien onarpena jasotzeko (baimen orria sinatzen dute).

Kurtsoan zehar, ebaluazio saioetan baloratutako informazioa familiei pasatzeko batzarrak antolatuko dira.

Ikasturte bukaerako batzarrean ikaslearen kurtso amaierako egoeraren berri ematen zaie eta hurrengo ikasturteko planaren irizpideak.

Urtean zehar beharizanen arabera bilerak antolatuko dira.

6-NOLA GAUZATUKO DIRA LAGUNTZAK

Laguntzak ikasturte bakoitzean ditugun baliabideen arabera antolatuko dira aspektu hauek kontuan izanik:

- Ahal den neurrian laguntzak gela barruan emango dira.
- Arlo instrumentalak, Hizkuntza eta Matematika, lehentasuna izango dute.
- Taldearen ikasle kopurua eta zikloa kontuan izango dira.

7-BAIMENAK ETA ESKAERAK

-GURASOENTZAKO

- Hezkuntza indartzeak gelatik kanpo emateko baimena.
- Aholkulariak behaketa egiteko baimena.
- Berritzeguneko aholkulariak ebaluazio psikopedagogikoa egiteko baimena.
- Logopeda, fisioterapeuta, terapeutaren balorazio baimena.
- Heziketa Premia Bereziak zerrendatan sartzeko baimena.

-TUTOREENTZAKO.

- Hezkuntza indartzeak eskatzeko orria.
- Kontsultoreak behaketa egiteko tutorearen eskabide orria

8-HEZKUNTZA LAGUNTZAKO PREMIA BEREZIEN APLIKAZIOA: bi erregistro daude.

1. Hezkuntza Premia Bereziak ikasleak
2. Ikaskuntza zailtasun espezifikoak (irakurtzeko, idazteko, kalkuluan zailtasunak dituztenak - hizkuntzaren berariazko nahasmenduak - arretagabezia hiperaktibitatearekin edo gabe- adimen gaitasun handikoak) dituzten ikasleak.
 - Diagnostikoa izan behar dute (psikologo kliniko, neuropediatra, UPI, ikastetxeko profesionalek Berritzeguneko aholkulariekin egindako ebaluazio psikopedagogikoa)
 - Diagnostiko hauek ikasleen espedienteetan egon behar dira.
 - Kontsultoreak Hezkuntza Laguntzako Premia Bereziak aplikazioan erregistratu egin behar ditu. Horretarako familia baimena behar da ([1. eranskina](#)).
 - Irakasle tutoreek [JARDUKETA PLAN PERTSONALIZATUA](#) egin behar dute. Plan hau egiterakoan irakasle espezifikoak ere parte hartu egin behar dute. Bakoitza tokatzen zaion arloan.
 - Hezkuntza ikuskaritzak planak berrikusiko ditu.